



Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2023ko azaroaren 13ko EBAZPENA, 2023-2024 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2023ko ekainaren 20ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen bigarren eta hirugarren berritzeak ebazten dituen.

Laguntzak berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren bigarren berritzea onartzea eta dagokien ezarpen zentroa zein kontratuak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren hirugarren berritzea ematea eta dagokien ezarpen zentroa zein kontratuak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.

Hirugarrena.- Laguntza berritze horien zenbatekoak ordaintzea xedapen honen I. eta II. eranskinetan aurreikusten diren aplikazio-zentroe, ekainaren 20ko Aginduak, 7. artikuluan, ezartzen duen moduan.

Laugarrena.- Dirulaguntzen zenbatekoa, iraupena eta gainerako baldintzak, 2023ko ekainaren 20ko aginduak xedatutakoak izango dira.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza sailburuari gorako errekurtsioa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 13a

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea,
Adolfo Morais Ezquerro